ARRATE EGAÑA

KAIOLAN



JOKALEKU ITOGARRI BATEAN, IRAGANAREN EZUSTEKO AGERPENAK ERA IKARAGARRIAN ALDATUKO DITU LAU GAZTEREN BIZITZAK.

erein

KAIOLAN

Perzebal, 53

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko azaroan

Azalaren diseinua:
Ivan Landa
Maketazioa:
Asier Beltza
© Arrate Egaña
© EREIN. Donostia 2026
ISBN: 978-84-1093-151-0
L. G.: D 920-2026
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

ARRATE EGAÑA

KAIOLAN

erein

1

—Lortu dugu!

Erikek, pozez oihu egin ondoren, Laiari musu eman dio ezpainetan, musu luze bat. Elkarri begietara begira geratu dira gero, Irati zelatan dutela. Azkenean, Mikel eta Irati bera ere elkartu zaizkie, eta ukabilak elkartu dituzte laurek.

—Ez zen hain zaila! –oihu egin du Laiak.

—Zeuk asmatu duzu ia dena –gogoratu dio Iratik txaloka.

—Ez; denon artean egin dugu.

—Egia esateko, talde bikaina osatzen dugu –esan du Mikelek.

Erikek kolpetxo batzuk eman dizkio lagunari, eta lepotik besarkatu du.

—Hemen eta edonon gara onenak lau fantastikoak.

—Tira, tira, ez eman hainbeste pote –mintzo da Laia ironiaz–. Lehenago ere asma genezakeen, baldar samar ibili gara.

—Ez epaitu, Laia –leporatu dio Mikelek–. Beti zabiltza berdin.

Ikasturtea amaitzeko gutxi geratzen da, eta joan den astean *escape room* horretara joatea erabaki zuten, ostiral arratsaldez zerbait desberdina egiteko, behingoz, eta Mikelek denbora zeramalako eskatzen. Ez zekiten herrian bertan zutela horrelako bat, industrialdeko auzoan. Berria omen da.

Goizean institutuan ibili dira. Ezer gutxi egin dute, notak jasotzeaz gain. Arratsaldean, bazkal ostean, animatuta irten dira herritik udako eguzkipean, kanpoaldeko pabiloietarantz. Heldu direnean, etxetxo bat topatu dute. Atean zegoen beltzez jantzitako morroi handi batek sarrarazi ditu, eta mugikorrak saski batean uzteko eskatu die. Ondoren, tipoa desagertu da, telefonoak eramanda. Mikel ez da gustura gelditu mugikorretik aldenduta, baina besteek bezalaxe bete du agindua. Gero, gela arrunt samar batean sartu dira, eta atea itxi da.

Gela barruan, jolasaren jarraibideak aztertu dituzte, lanparatxo baten alboan.

Planteatu zaien enigman bost pertsonaia zeuden, eta biktima bakarra; aztarnen bidez, zein zen hildakoa eta zeintzuk hiltzaileak asmatu behar izan dute.

Pertsonaien deskribapen labur bana irakurri dute txosten batean, bakoitzaren zodiako-ikurrarekin batera. Aztarnak paperetan idatzita aurkitu dituzte, han eta hemen; aztarnek hurrengo aztarna non bilatu

jakinarazten zuten. Horiei jarraituta, aise asmatu dute nor zen biktima: Tomas delako bat. Alfonbra azpian aurkituriko haren eskelari esker jakin dute.

Ondorioztatu dute gainerako laurak izan zirela hiltzaileak, elkarlanean egin zutela hilketa. Alde batetik, Edwin eta Laura konde-kondesek planeatu zuten Tomas pozoituta hiltzea. Aski ergela zirudien Edwin horrek, aberaskume tontoloa; Laura, aldiz, ederra izateaz gain, adimentsua bezain hotza: zehazki eta zorrozki antolatu zuen krimena. Beste bi pertsonaiak, Mario zerbitzaria eta Irene etxezaina, zintzoagoak izan arren, aristokraten konplizeak izan ziren, eta hilketaren frogak ezabatzen saiatu ziren. Delituaren motiboa ez da batere argi geratu; nonbait, ezinikusia zioten lau hiltzaileek Tomasi, azkarra eta xarmagarria zelako. Horregatik bakarrik akabatu ote zuten? Ez dute ikertzen jarraitzeko gogorik. Kontua da misterioa argitu dutela.

—Istorioa ez zait sinesgarria egin –dio Erikek–. Horrelakoak izango al dira ihes-gela guztiak?

—Ez –erantzun dio Mikelek–; nik ikusi nuena dibertigarriagoa zen hau baino, handiagoa, eta gai zehatza zuen: giza gorputza. Gorputz erraldoi baten barrutik ibiltzen zinen, gaixotasun baten bila. Gaurko hau eskasa iruditu zait.

—Ziur zu ihes-gela batean egon zarela? Noiz, ordea? –galdetu dio Erikek gutxiespenez.

—Iaz, gurasoekin, txoro hori.

Erikek, harro, gibelaldea eman dio.

—Ni ere horrelako batean egon nintzen behinola –adierazi du Iratik–. Antzinako mitoei buruzko istorio polit bat kontatzen zuten han.

—Gaurkoa izan da nire lehendabizikoa –Erikek–. Eta azkena ere bai, ziur aski. Zelako kaka.

Laiak bizkarretik besarkatu du mutila.

—Niretzat ere estreinakoa izan da, Erik. Eta uste dut ez dugula zorte ona izan: hau ez da beste horiek bezain espektakularra… Dena den, ziur nago besteetan ere bikain jokatuko genukeela.

—Ihes-gelek normalean bizpahiru espazio izaten dituzte –esplikatu du Iratik–. Beste batera joan beharko zenukete, zaputza gainetik kentzeko sikiera.

—Paso –erantzun dio Erikek.

Ihes-gela honetan, lau lagunek ordu bete inguru baino ez dute behar izan hilketa argitzeko. Ustezko misterioa sinplea iruditzeaz gain, eskasa eta arrunta egin zaie aretoa orobat, aristokraten egongela-edo irudikatzen duena. Sofa bi ditu tximiniaren aurrez aurre, angelu zuzenean elkarturik; erretratu goibel bat tximiniaren ezkerrean; eta, ezkerreko partean ere, armairu baxu bat, hutsik, gainean telebista zahar bat duena; armairu baxuaren alboan, ur-bidoi bat. Tximiniaren eskuinaldean, berriz, liburutegia; harago, leiho biribil bat, koloretako kristalez egina, kaperetako beirateen antzera.

—Ez da izan ostirala pasatzeko planik onena –esan dio Erikek Laiari, begia kliskatuz–, baina arratsa geratzen zaigu.

—Ni gaur ez naiz geratuko –jakinarazi die Iratik–; nekatuta nago, eta tripako minez.

—Neu ere ez –esan du Mikelek, ezer erantsi barik.

Erik harriturik geratu da, lagunei begira, azalpen bila.

—Ez genuen gaur ospatu behar laurok gainditu dugula kurtsoa? Nik Zientzia bakarrik utzita. Bat baino ez! Eta Mirenek kopiatzen harrapatu ninduelako, bestela…

Erikek mingaina klaskatu du, eta besteek barre egin dute. Egia da Erikek urterik urte gutxienez bi arlo utzi dituela errekuperatzeko, eta aurten abilago ibili dela; beste hirurek, aldiz, garbi atera dute urtero aurrera kurtsoa.

Irati burua mugitzen ari da, desadostasuna iragarriz.

—Beste noizbait ospatuko dugu.

—Tira, ez dugu beste inoren beharrik –esan du Laiak Eriken ile nahasia laztanduz, eta barre murritza egin du, sekretu bat balute bezala.

—Ez dut zalantzarik.

Laiak kliskatu dio oraingoan Iratiri begia.

—Dena den, neska, bilera izango dugu bihar elkarte feministan. Proposamen garrantzitsu bat eramango dut.

—Ea nola esnatzen naizen bihar goizean, Laia.

Mikel gelako ate bakarrerantz abiatu da.

—Tira, lagunok, hemendik ospa egiteko ordua da –esan die–. Sartu garen ate beretik irten beharko garela pentsatu dut.

—Besterik ez dago, jenio! –trufari, Laia.

Ohitua dago Mikel bere buruari pazientzia eskatzera, Laiak askotan jaurtitzen baititu horrelako ziztadak.

Iratik ile-xerlo kizkur bat koloretako zapi azpian kokatu du, buruan ohi daramana.

—Horixe, goazen lehenbailehen.

Atearen inguruan bildu dira lau lagunak. Zamarra finak jantzi dituzte, eta Erikek buruan ezarri du jertsearen txanoa.

Mikelek atea irekitzen saiatzen dihardu, baina ez da erraza.

Iratik sabela besarkatu du, minez.

—Bua, ez nago batere ondo.

—Lasai, Irati, berehala egongo gara kanpoan.

Baina atea ez da irekitzen.

—Gogorra dago hau –dio Mikelek, eskulekuari tai gabe eraginez. Baina ezin du ireki.

—Zer gertatzen da? –galdetu du Laiak doinu zatarrez–. Goazen behingoz!

—Ezin dut atea ireki.

—Kendu, potroso hori –agindu dio Erikek harropuzkeriaz–. Gure kirolaria, ate kaskar bat ere ezin ireki! Abisatu nizun: gizendu egin zara.

—Lasai, txo.

—Ez pikatu, lagun! –esan dio Laiak Mikeli barrez.

Erikek laguna albo batera bultzatu eta indar handiz tiratu du. Eskuleku doratua alde batera eta bestera mugitu arren, atea ez da irekitzen. Azkenean,

are gogorrago eragin ostean, kirtena eskuan geratu zaio. Ateak itxita dirau. Laiak mekanismoari begiratu dio, eta gakoa aurkitzen saiatu da: alferrik, ezin jakin zer gertatzen den.

—Ze arraio da hau?

Erikek kolpe batzuk eman dizkio ateari.

—Horrela ez, Erik! –oihu egin dio Iratik–. Beti berdin.

—Nola, bestela?

Mikel sabaiari zuzendu zaio.

—Ei! Hemen gaude, misterioa argitu dugu!

—Ireki atea! –lagundu dio Laiak–. Utzi ateratzen!

Erreguak apaldu diren unean, itzali egin da argia. Sustoak garrasika jarri ditu lagunak. Mikelek, Laiak eta Erikek airea haztatzen dute, harik eta alboko laguna ukitzen duten arte. Irati apur bat atzerago geratu da hasieran, ikaraturik, lagunengana gerturatu nahi baina ezinean. Lortu du azkenik, eta estu besarkatu dute laurek elkar.

—Eta orain, argi barik! –aldarri egin du Mikelek.

—Txosna itxiko zuten agian –erantzun dio Laiak.

—Gu hemen utzita?

Halako batean, mahai txikiaren gaineko lanparatxoa gutxinaka piztu da. Argi motel batek gela geldika-geldika argitu du, bazterrak ilunpean geratu diren arren. Lau lagunak deslotu, eta lanpararen inguruan gelditu dira. Erik sofan eseri da.

—Zertan ote dabiltza?

—Ez dakit –erantzun du Laiak–. Ematen du gutaz ahaztu direla.

—Posible al da hori?

Erikek berriro ekin dio ateari, ostikadaka, ukabilka.

—Ireki behingoz!

Laia hurbildu zaio.

—Aski da, Erik, mesedez.

Zoro legez jarraitu du hala ere Erikek atea jotzen.

Ezustean amatatu da lanpatxoaren argia ere. Ilunpean geratu dira ostera. Erikek atea astintzeari utzi eta lurzoruan eseri da, hatsanka. Iluntasuna aprobetxaturik, Eriken ondoan kokatu da Laia, eta mutilari lepotik igotzen zaion usain sarkorra atseginez usaindu du.

—Erik, ahaztu betiko atea jipoitzearena –eskatu dio Mikelek, kezkatzen hasia–; ez dakit zelan irtengo garen hemendik, baina horrela seguru ezetz.

Itsumustuka sofetaraino iritsi eta bertan eseri dira laurak. Beiradun leiho biribiletik koloretako argi motela sartzen da, eta zer edo zer ikus daiteke orain. Irudi luke garai batean eliza izana, itxuraldatuta agertu zaien gela. Goibela du eitea, itzaltsua.

—Zelako giro gotikoa –xuxurlatu du Iratik.

—Egia –berretsi du Laiak–; polita litzateke, beste egoera batean bageunde.

—Konturatuko dira hemen gaudela, berehala aterako gaituzte.

Minutuak aurrera doaz, ordea, eta atea irekitzen ez.

Mikel mugikorra hartzeko irrikaz dago. Ihesgela guztietako sarreran utzi behar ei da, aztarnak artez jarraitzeko, kanpoko laguntza barik. Izaskun bere deiaren zain egongo da honezkero. Duela aste pare bat hasi zen Izaskunekin. Lagunei ez die ezer esan, Eriken etxean ezagutu zuen arren, lagunaren lehengusina baita. Oso desberdinak dira hala ere. Kontatu egingo die, noski, baina pixkanaka eta tentuz, benetan gustuko baitu neska, eta ez du gura inork harreman hori zapuztea. Zelan hartuko dute lagunek? Ederto, seguru asko; dena den, txantxak jasan beharko ditu, eta iruzkin deserosoak.

Bestalde, urduri mugitzen ditu Mikelek hatzak: telefonoko jolasen beharra du. Orduak ematen ditu jolas txoro horiekin, blokeak pilatzen, frutak hautatzen edo altxor-kofreak irabazten. Entrenamendura berandu iritsi da batzuetan horregatik, eta behin batean gainean egin zuen txiza, partida bat erdizka ez uzteagatik.

—Gela hau ezaguna egiten zait –esan die lagunei–. Antzeko bat ikusi dut non-non, film edo serieren batean, baina ez naiz zehazki oroitzen.

—*Stranger Things*eko etxe narrasen tankerakoa da hau. Horietakoren bat ekarri dizu agian gogora. Orduak eman genituen zure etxean, serie hori ikusten.

—Agian bai.

—Itsusia da, gero.

Laiari, aldiz, gelako dekorazioa gustatu zaio: ez oso zaindua, baina errealista. Antzinako saloi bat, amonaren etxekoa baino zaharragoa, biziki *vintage*. Paretak paper berdexkaz forratuak daude, motibo geometriko eta patroi zehatzez: *art deco?* Gogoan du estilo hori, Zabaltza Arte irakasleak irakatsi die. Kolore bera dute sofek eta alfonbrak, goroldio-berdea, tonua aldatzen bada ere. Badu bere puntua. Tximinia egiazkoa dela iruditu zaio, baina ez du ziurtatzeko denborarik izan. Kanpotik ere bitxia egin zaio: ume batek marraztutako etxetxo xume tipikoa, Hansel eta Gretel neba-arrebek deskubritu zuten karamelozko etxearen tankerakoa.

Laiak artea ikasi nahi du, edo dekorazioa, margotzeko esku ona baitu, eta sentsibilitate artistikoa, auskalo nondik etorria. Ama ez da batere zalea, eta gutxi ezagutzen du aita; edonola ere, inoiz ez dio artearen inguruko deus ere entzun, hori ziur.

Behin ihes-gelaren plan tontoloa amaitu eta kalera irten ostean, Erik eta bera Stick tabernara joango dira, hanburgesa bat jatera, hori adostu baitzuten lagunek. Afal ondoren, hondartzara abiatuko dira –ez ahal da inor egongo–, izarren azpian etzatera, edo Laiaren beraren etxera zuzenean. Aukera du, eta presarik ez; amak gaueko txanda duenez ospitalean, egunsentira arte ez da itzuliko. Abagunea izan liteke, mutil-lagunarekin oheratzeko gau aukerakoa. Ez dago ziur, alabaina. Eriki adieraziko dio, une egokia dela garbi ikusi ezean.

—Ez dakit zer demontre gertatzen ari den –esan du Mikelek.

—«Demontre» hitza amumari baino ez diot entzun, motel –diotso Laiak irriz.

Iratik Laiari erreparatu dio. Ez du lehen bezain gertu. Bolada batean elkarrekin ibili ziren, denek dakitenez: magikoa izan zen. Baina amaitu egin zen, eta oso azkar, di-da. Ia ez zioten azalpenik eman elkarri. Bolada batez sufritu ostean, onartu zuen orain ez direla lagunak baino: lagun onak, zorionez. Hori bai, espero zuen, lagun gisa, maizago elkartuko zirela, baina bere mutilarekin egoten da Laia ia denbora guztian. Berdin dio, berak ere baditu bere loturak, eta lagun gehiago: adibidez Alizia, beste ikasgela bateko neska jator zentzuduna. Konfiantza handia egin dute, eta ez da Laia bezain hanpurutsua. Yoga egiteak ere ederki lagundu dio. Psikologiako irakasleak bultzatu zuen, eta ez da damutu. Beste fase batera igaro da: helduago sentitzen da.

Nolanahi ere, Laiaren falta sentitzen du. Zelako barreak egiten zituzten! Zein gustuko zuen haren etxera joatea, Laiaren ama mundiala iruditzen baitzaio. Ez da ama normal bat; bakarrik dagoelako, beharbada. Laiaren aita beste herri batean bizi da, eta beste familia bat du. Behin bakarrik mintzatu zaio Laia horretaz: ez zion oinaze handirik sumatu, ohitu dela esan zion destainaz.

—Gaia aldatuta: denek utzi al duzue mugikorra sarreran? –galdetu du Mikelek.

Baietz erantzun diote beste hirurek.

—Izorratuta gaude –xuxurlatu du Erikek haserre–. Eskerrak gurasoei komentatu diedan berandu iritsiko naizela.

Dena den, ez du axola handirik. Marmarka eman dio aitak oniritzia; amak ez du txintik ere atera. Ordenagailuan zegoen, Bukaresti buruzko informazioa bilatzen. Etengabe dauka gogoan Bukarest. Ezin du ulertu orain hemen daudela, hementxe jaio direla bere seme-alabak! Polita da Bukarest, ados, ondo dakite guztiek etxean, hainbat aldiz egon baitira han. Errumania interesgarria da, ezin uka, tradizio bitxiz apaindua. Errumaniarra omen zen Drakula, begira, eta oso ospetsua egin zen Nadia Comaneci gimnasta gaztea; beno, olinpiada haietan ibili zenean gazte, aurrehistorian. Eriken herria hemen dago. Ama, batzuetan, deprimitzen da, eta Bukarestera joan behar izaten du halakoetan.

—Zenbat denbora daramagu hemen? –galdetu du Erikek kezkaturik–. Hau ez da batere normala.

Dardarizo batek astindu dio gorputza. Jasangaitzak zaizkio espazio itxiak, fobia die. Ez da txantxa. Laiaren eskua estutu du. Lagunak etxera joango direla dirudi; hortaz, denbora luzea izango du neskalagunarekin egoteko. Afalostean norabait joango dira, biak bakarrik. Grinaz dago.

Halako batean, tximiniako sua piztu da, eta saloiko altzarien profilak nabarmendu dira: sofa biak, apalategi liburuz betea, paretetako paper margotua, koadroa.

—Hara –esan du Laiak–, tximinia egiazkoa da!

Beste hirurek ez dute neskaren sorpresa partekatu; umore txarra nagusitu da gelan.

—Bost axola niri sua eta tximinia –esan du Erikek–. Kaiola honetatik ihes egitea, besterik ez daukat buruan. Lortu ezean, erotuko naiz.

—Nahiko garbi dago, ezta? Gutaz ahaztu dira –erantzun dio Mikelek.

—Edo ez…

Iratiren zalantzak zur eta lur utzi ditu lagunak.

—Zer esan nahi duzu? –galdetu dio Laiak.

Inork galderari erantzun aurretik, musika lauso misteriotsu bat hasi da entzuten telebista zaharra dagoen izkinatik. Txoko horretara hurbildu dira laurak astiro. Telebista zaharra piztuta dago. Hasieran, puntutxo batzuk dantzan, ez da besterik ikusten, programa gaizki sintonizatuta balego bezala. Erikek kolpe bat eman dio, eta puntuak marretan lerrokatu dira. Ondoren, marrak antolatu eta irudiak osatu dira. Irudi horietan lau pertsona ageri dira, toki ilun batean, goitik ikusiak.

—Geu gara –esan du Laiak ziurtasunez, eskua ahora daramala–. Guri begira daukagu baten bat orain.

Beldurrak bildu ditu lagunak.

Iratik dardara sumatu du bizkarrezurrean, Mikel aho-zabalik geratu da, eta Erikek besoak astindu ditu. Pantailan ikusi dituzte keinu horiek guztiak.

—Amesgaizto bat da hau –esan du Mikelek ahapeka.

—Bat gatoz –erantzun dio Erikek–. Beldurrezko film baten barruan gaude.

Sabaia aztertu arren, ez dute inongo kamerarik ikusten. Lanpara atzean ote dago? Edonola ere, norbaitek grabatzen ditu, eta lau lagunek beren irudiak ikustea ere nahi du. Zergatik?, galdetzen dute, zertarako?

—Goiko lanpara handian egon liteke kamera –dio Iratik isilpean.

—Ez dakit –jarraitu du Mikelek–; orain atzetik ikusita ageri gara.

—Tximiniatik! –bota du Erikek.

Larriduraz miatzen dute gazteek ingurua. Laia zoruan eseri da, eta besteei mintzatu zaie.

—Berdin dio. Kontua da hau ez dela istripu edo hutsegite bat izan. Toki honen jabea ez da joan gu hemen ahaztuta utzita… Preso gaude, norbaitek harrapatu gaitu.

—Eta guri begira dago.

Txundituta ari da Erik egiaztapen berriak kontuan hartzen.

—Tranpa bat izan da guztia! –egin du deiadar.

—Nork jarria, baina? –galdetu du Mikelek.

—Eta zergatik? –jarraitu du Laiak.

Telebista itzali da.

—Libre gura badugu irten, horixe deskubritu beharko dugu –erantzun die Iratik serio.

Antzinako pop-musika entzuten da orain, bolumen baxuan baina etengabe.